




lak gehien kaltetutako herrialdeetan, herritar askoren ezjakintasunari esker. Min ematen du norbere lagun arbuioak eta horixe eragiten du ebola nola kutsatzen den garbi ez edukitzeak, bizirik atera direnek esplikatu dutenez. Alaiena deprimitzeko moduko arbuioa da hurbilen dugun pertsonena.

Melvin Korkor medikuaren esperientziaren tankerakoa du Claudius Barnawolo liberiar osasun langileak ere. Front Page Africa Online sareko hedabideak ebolak kutsatu eta bizirik ateratako erizainaren eta bere etxe-koen hitzak jaso ditu, jasaten duten estigmatizazioa nabarmenduz. Osasun langileek oso garesti ordaindu behar izan dute ebolaren aurkako borrokan esku hartu izana. Liberian, esaterako, 152 langile kutsatu ditu ebolak eta horietako 79 hil egin dira. Korkor eta Barnawolo bizirik ateratako 73 lagun horien artean daude.

LIBERIA, OKERRERA

MOE Munduko Osasun Erakundeak aste honetan bertan jakinarazi duenez, datozen hiru asteetan milaka lagun kutsatuko ditu ebolak Liberian eta «aparteko neurriak» hartu beharko dituzte. Herrialdeak dituen 15 konderrietako 14tan baieztatu

Beldurra eta ezintasuna adierazten duten begiradak Liberiako etxe batean, osasun langileek ebolaren eraginez hildako bizilagun bat nola eramaten duten begira daudela.
Dominique FAGET | AFP

dituzte ebola kasuak eta, egoera ikusita, adituek diote kutsatutakoen eta hildakoen kopuruek ikaragarri egingo dutela gora oraindik.

«Liberiako tragedia ulertzeko kontuan hartu behar da izurritea hasi aurretik mediku bakarra zegoela 100.000 biztanlerentzat, 4,4 milioi biztanle dituen herrialdean. Gauzak ondo egin ahal izateko, 70 paziente zaintzeko 200dik gora osasun langile behar dira», dio MOEk.

Monrovia hiriburua hartzen duen Montserrado konderriak milioi bat biztanle ditu. Dagoneko kutsatuta dauden herritarrek hartu ahal izateko, egun duten ohe kopuruari (240 soilik) beste 1.000 erantsi beharko litzazkioke. Herritarren laguntza ezinbestekoa izango da.

«Norbaitek sintomaren bat sentituz gero, erietxera joan beharko luke lehenbailehen. Gaixotasuna gainditzeko aukeraren bat izango du orduan», esan du Sakillak.

«Gaixotasun honetatik bizirik ateratzen garenok jendeari erakusteko moduko agiri bat behar dugu, ebolaz kutsatu eta sendatu egin garela esanez», adierazi du Matu Kamarak.

«Pamplinas»

Unai Belaustegi

Buster Keaton Ameriketako Estatu Batuetako aktore, zine zuzendari eta gidoilaria “Pamplinas” goitzenarekin ezagutzen zuten espainiar Estatuan. Umorezko pelikulekin egin zen mundu guztian famatu, tartean, goitizena eman zion 1920an grabatutako “Pasión y boda de Pamplinas”. Donostiako zinemaldia datorrela aitzakia hartuta, Keaton buruz idaztea pentsatu dut.

Duela 80 urte inguru, Buster Keaton Donostian egon zen abuztu amaieran. Garaiko egunkariak zezenketa bat ikusten agertu zela kontatu zuten, eta zezenketarekin harrituta geratu zela: «Hollywooden ni hiltzaile (matador) paperean agertzen naizen pelikularen bat grabatu beharko genuke». Hurrengo egunean Biarritz bisitatu zuen, bere emazte eta aktore Natalie Talmadge eta jatorri euskalduneko Luis Alonso (Gilbert Roland) mexikar aktorearekin batera. Donostiara itzuli eta elkarteren batean bertoko janariarekin gozatzeko aukera ere izan zuten.

El Pueblo Vasco garaiko egunkariak “Pamplinasen” elkarrizketa bat kaleratu zuen, tartean galdera-erantzun hauek: «Diru asko irabazten al duzu?. Bai jauna, nahikoa; Soinudun pelikulek pelikula mutuen lekua hartuko al dute? Ziur asko gertatuko da; Zineak antzerkia hilko al du? Arlo desberdinak dira baina zinemak ikusle asko kenduko dizkio».

Harrigarriena zera da, ordea, umorezko pelikulengatik ezaguna zen aktoreari beste hau ere galdetu ziotela: «Keaton jauna, beti hain serio egoten al zara? Etxean eta pelikuletan ere bai? Bai, pelikuletan eta jendaurrean bai, baina etxean eta familiakoen artean ez, berez gizon zorionsua naiz eta!». Aipatu, pamplinas hitza beste gauza batzuen artean, fundamentu gutxiko zerbait izendatzeko erabili ohi dela. Keatonek ez omen zuen goitizena maite. •